

Neurri berrien atarian

Osasun larrialdi egoera ezartzea, COVID-19 ziurtagiria eskatzea eta haurren txertaketa, abenduak dakarrena / 2-3

Donostiako Maratoian, Top hamarrean

Sekulako erakustaldia eman zuten Asier Martinez eta Juan Luis Gomez urnietarrek, 7. eta 8. sailkatuta. Biak ere 2:30:00 denbora azpitik helmugaratu ziren / 12

Euriteak ibaiertzean baino gehiago, arriskua eragin zuen N-1 errepidean eta Leizaran bailaran / 5

Hiru aukeren artean, Plazido Muxika plaza estaltzeko azken hitza herritarrena izango da / 7



Triana taldeko Tomas Cuerva, Estela Perez eta Antonio Sanguinorekin solasean / 8-9




Andoaingo Saihesbidea aukera gisa berraztertzeko eskaera luzatu diete erakundeei / 6



OGIA EZ DADI LA FALTA
... ezta euskara ere!
Andoaingo haur eta gaztetxoak, adi datozen egunetara





Ezagutu gabeko egoera bizitzen ari gara Andoainen. Inoizko positibotasun handiena bizi dugu. URKOVALLEJO

Intzidentzia-tasa handikoak izango dira Gabonak bitarteko egunak

Barrualdean bilkura sozial gehien egiten den urteko garaia da abendukoa. Eusko Jaurlaritzatik ematen dituzten datuak geroztik eta okerragoak dira. Positiboak, ospitaleratzeak, heriotzak... Eguberrietara intzidentzia-tasa handiarekin iritsiko gara

Jon Ander Ubeda ANDOAIN


Azaroaren erdialdean seigarren olatua iritsi zenerako, ahaztu samar genuen bosgarrena nolakoa izan zen. Ikasturte amaierakoa bezala definitua izan zen, uda hasierako ospakizun eta ikas-bidaiei ondoen lehertu baitzen. Gazteena zen, hain justu, txertatu gabeko populazioa eta haiek txertatzearekin batera alarma gorriak itzaliz joan ziren. Orduko hartan gizartearen segmentu zehatzean eragin zuen.

Azarora iritsita olatu berria gainean dugu. Zaharrak berri, pentsatzen hasita gaude asko eta asko. Baina olatu batetik bestera egoera ezberdina da. Oraingoan kutsatuen artean

AZPEITIA, ZUMARRAGA ETA ANDOAIN DIRA OKERREN DAUDEN UDALERRIAK

txertatuak eta txertatugabekoak aurki daitezkeelako.

Intzidentzia-tasa biderkatzen ari da, astez aste, eta horrela jarraituz gero intzidentzia-tasa maila gorenera iritsiko da. Aurretik inoiz ezagutu gabeko intzidentzia-tasara, zoritxarrez. Gipuzkoan marka guztiak hausteko bidean goaz, eta udalerriei erreparatuta Azpeitia, Zumarraga eta Andoain dira tamaina ertain eta handien artean egoera epidemiologiko okerrera agertzen dutenak.



Olatuen joera aldatzeko asteak behar izaten dira. URKOVALLEJO

Aurrekariak ikusita, egoera berbideratzeko asteak beharko dira

C-19 Analisia Urko Vallejoren internet gunera jo dugu aurrekariak erakutsi digutena analitzera. 2021eko apirilaren hasieran, olatu berria gerarazteko neurriak hartu zituzten. Egoera epidemiologikoa hobetzeko 19 egun behar izan ziren. Martxoaren amaieran abiatu zen laugarren olatu hura apirilaren 25ean apaltzen hasi zen.

Uztailaren 15ean oldarraldi berriari aurre egiteko gaueko bilkurak debekatu zituzten, eta intzidentzia-tasa uztailaren 27an hasi zen jaisten.

Beraz, azken bi olatuetan 19 eta 12 egun behar izan dira, hurrenez hurren, egoera onbideratzeko.

Azaroaren 1etik 7rako kasu positiboak 1.424 izan ziren, eta 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 109,24koa zen. Azaroaren 22tik 28rako astean positiboak 6.335eraino igo ziren, eta intzidentzia-tasa laukoiztu egin zen: 471,56.

Azaroaren 30an Sagardui Sailburuak 509ko intzidentzia-tasaren berri eman zuen. Egoerari eutsi ez ezik, okertuz doala erakutsiz.

Eta horren aurrean zer egin? Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdi egoera berrezarriko duela iragarri du. Diotenez astebururako prest legoke neurri-sorta berria. Ziurrenik gaueko aisialdian eta ostalaritzan eragingo du, eta baita kultur eta kirol jardueretako aforoean ere. Horrez gain, Jaurlaritzak Covid-19 ziurtagiria Euskadin ezartzeko baimena jaso du Espainiako Auzitegi Gorenetik. Bi horiez gain, Eusko Jaurlaritzak hirugarren neurria ezarri nahiko luke: musukoaren erabilera nahitaezkoa barrualdean eta aire librean. Neurri sorta horrekin birusaren oldarraldi berria gerarazi nahi da, eta Sagardui sailburuak Udalerriak erakundeei eta herritarrei mezu argia bidali die: dauden neurriak bete behar dira, eta neurriak areagotzeko aukera baldin badago, askoz hobe.

Zenbat denbora behar da intzidentzia nabarmen jaisteko?

Erantzuna asmatzea ez da ariketa erraza izango, garaian garaiko aldagaiak kontutan hartu behar direlako. Eguberrietara, ordea, intzidentzia-tasa handiarekin iritsiko gara. Jaurlaritzatik ematen dituzten datuak geroztik eta okerragoak direlako. Positiboak, ospitaleratzeak, heriotzak... azaroa beltza izaten ari da.

Datuen analisi zehatza egiten duen Urko Vallejo andoaindarraren ustez, "gutxienez bi aste beharko dira intzidentzia-tasan eragiteko. Eta hala gertatuko balitz ere, aurreko olatuetan hilabete baino gehiago behar izan dugu beherakada nabarmena izateko". Abenduan sartu gara, barrualdean bilkura sozial gehien egiten den urteko garaia. Urtarrileraino luza daiteke egoera epidemiologiko estua.

Egoera ulertzeko gakoak, 2021eko azarora iritsita

Intzidentzia-tasa maila handiena duen lurraldea da Gipuzkoa, udazken osoan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Normaltasun berriaren ateak zabaldu zituzten, eta, berrogei egunen bueltan, egoera oso bes-telakoa da.

Osasun-alarmerik gabeko egunak

Urriaren 7an hasita, eta 41 egunez, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi zuen osasun-alarma egoera. LABI batzordea desegitea ere erabaki zuen. Egoera okertuz gero, zein zen plana ez zitzaion azaldu euskal gizarteari. Normaltasunari ateak irekitzearekin, birusari aukera berriak zabaldu zitzaizkion.

Intzidentzia-tasa handia

Urriaren hasiera hartan Gipuzkoa ez zegoen eremu berdean. Izan ere, 60ko intzidentzia-tasaren azpitik egon ez den lurralde bakarra da Gipuzkoa.

Igoera ikusgarriaren oinarria

Igoera ikusgarria ezagutu dugu azaroaren 22an eta 29an, bereziki Andoainen. Baina, oro har, Gipuzkoa osoan. Igoera hori ez da bat-batekoa izan, urriaren 8tik egunero-egunero indartuz joan delako. Urriaren 26an C-19 Analisia orrialdea kudeatzen duen UrkoVallejo andoaindarrak honako iragarpena egin zuen: "Positibotasunak eta intzidentzia-tasak gora egin dute azken astean. Seigarren olatuaren bidean gaudela dirudi. Sagarduik dio, intzidentzia-tasaren igoerak ospitaleratze kopurua igoarazi duela, baina ez dela halakorik ger-

tatu UCI-ZIUtako ospitaleratutako artean. Bai, egia da; eta aurreko olatuetan gertatu dena errepikatzen bada, ondorengo egunetan handituko da zainketa berezien unitatean egongo den lagunen kopurua". Denborak arrazoia eman dio Vallejori.

Neurriak hartzeko geldotasuna

Arreta piztu du UCI-ZIUtako okupazioa 50ekoa izan arte neurriak hartzeko ekimenik ez hartzeak, zer zetorren argi samar zegoenean.

Olatuaren tamaina handiagoa da

Seigarren olatuak aurrekoa gaindituko du, grafikoek adierazten dutenari erreparatuz gero. Nabarmena da Gipuzkoako kasuan.

Arriskua apalagoa da

Egungo birusaren aldagaia kontutan hartuta, eta txertoen eraginez, olatu berri hau ez da hain arriskutsua. Baina bistakoa gertatzen ari da positibotasun maila handiak zeharkalte larriak eragiten dituela: ospitaleratzeak ugartu, UCI-ZIUtako okupazioa hazi eta hilkortasuna handitu.

Haurrak jomugan

Adin tarte guztietakoak dira kutsatzen ari direnak. Tartean, txertoa hartutakoak eta txertoa hartu gabekoak. Birusak duen indarraren eta oraindik ere birusa mendeen hartzeko dauden gabezien erakusgarri da. Haurrek ez dute egungo egoeraren pagaburu izan behar.

Azaroa hilabete beltza izaten ari da

Erredakzioa ANDOAIN

Aldagai guztiak nabarmen okertu dira, azken asteotan.

Azaroak 28, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 1694,69.
- Urnieta: 740,86.
- Gipuzkoa: 807,26.
- Positiboak denera: 6.335.
- Ospitalean: 214.
- UCI-ZIUtako: 47.
- Hildakoak: 18.

Azaroak 21, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 807,31.
- Urnieta: 402,64.
- Gipuzkoa: 510,37.
- Positiboak denera: 4.038.
- Ospitalean: 168.
- UCI-ZIUtako: 31.
- Hildakoak: 5.

Azaroak 14, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 160,13.
- Urnieta: 128,85.
- Gipuzkoa: 308,55.
- Positiboak denera: 2.576.
- Ospitalean: 114.
- UCI-ZIUtako: 30.
- Hildakoak: 6.

Azaroak 7, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 80,06.
- Urnieta: 64,42.
- Gipuzkoa: 174,33.
- Positiboak denera: 1.424.
- Ospitalean: 90.
- UCI-ZIUtako: 24.
- Hildakoak: 10.



IREKIA

Neurri berrien atarian gaude

Osasun larrialdi egoera indarrean jarriko dutela iragarri zuen Gotzone Sagardui sailburuak, asteartean. Asteburuari begira zehaztuko dituzte neurri horiek. Ziurrenik ostalaritzako ordutegiak eta ekitaldietako aforoei eragingo die. COVID-19 ziurtagiria eskatzen hasteko erabakia iristear da, gainera. Auzitegi Gorenaren aldeko ebazpena jaso baitu Eusko Jaurlaritzak.



IREKIA

Udal erakundeei ohartarazpena

Sagarduik mezua helarazi zien Udal erakundeei: "Prebentzio-neurriak betetzea ezin izango dela bermatu aurreikusten badute, jarduera eten edo atzeratu beharko dute". Eta, aurrera egiten badute, neurriak indartzeko eskaera egin zien: "Ekitaldietan prebentzio-neurriak hartzen badira, hauek indartu egin behar dira". Urrietako Udalak dagoeneko aforoa erdira jaitsi du.

Txistu bidezko PCR proba baheketak egiten direnean

Hezkuntza Sailak prozedura berria iragarri du, haur askorentzat askoz erosoagoa dena

Erredakzioa ESKUALDEA

Aurrerantzean baheketak egiten direnean Anbulatorioetik ikastetxera deituko dute, eta hauek zuzenean familiak ohartaraziko dituzte. Hartara, familiak zuzenean anbulatoriora joan behar-

du du ikasleak proba egin dezan. Prozedura aldaketa horrek beste berrikuntza bat ekarriko du: Ikasleei txistu bidezko PCR proba egingo zaiela. Haur askorentzat batere atsegina ez den sudur bidezko proba egitea saihestuko

da, modu horretan. Horrela jokatuta azkartasunean irabaziko dela adierazi zuen Bildarratz Hezkuntza Sailburuak, ikasleek ez baitute aztarnariaren deia zain egon beharko.

Ikastetxeetako egoera

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza maila eskaintzen den Andoaingo hiru ikastetxeetan lau gela zeuden itxita, astearen hasieran. Horietako bi ofizialki konfinatuta daude, eta beste bi "prebentzioz" itxita.



Txistu bidezko PCR proba. REDACCIONMEDICA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



SAREAN

Jarraipen zabala tokiko merkatariei egindako elkarrizketei

Gizarte sarean oso errotuta daude dendariak. Azken hilabeteotan dendari ezberdinen ahotsa ekarri dugu Aiurriko orrialdeetara. Eta albistea Internet sarean

partekatzean konturatzen gara zeinen estimazio handia dieten dendari horiei. Aurreko astean Andoaingo Karrika auzoko Coviran dendako arduradunei eskainitako tarreak bisitaldi

ugari izan zituen. Albiste irakurriena izatera iritsi zen, asteburuan. Antzekoa gertatu da Keinu, Guria, Istuitza, Salkin eta beste Aiurri atera izan ditugunean.



GORA ETA BEHERA



Pottoko dendara iritsi da Eguberria

Andoaingo Txitibar plazako negozioa iritsi da Eguberria, eta ohi duten bezala modu ikusgarrian. Gabonetako erakuslehoi ederrenetarikoa izaten da, gustu handiz prestatzen dutena. Kale Nagusiko Amantegi, Beti-Lore eta Arantxa Labores dendetako erakuslehoiak ere ederrak dira. Zorionak!



POTTOKO

HAU ERE BADUGU!



Bizilagunak bizilagunari: "Eguberri on!"

"Algodonera 8ko bizilagunen partez jai zoriontsuak opa dizkizuegu denoi!", mezu polita jaso dugu Aiurri. Baita zuei ere! Horrelako mezurik bidali nahi? Idatzi: astekaria@aiurri.eus.


www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Truxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugarte Mendia. ldazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnieta).
Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ** **ALIATUAK:** **TOKIKOM**
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: **ANDOAINO UDALA** **Urrietako udala**
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK: **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza**
ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:** **Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.**



Ibaiari begira asteburuan

Euria, kazkabarra, ekaitza, hotza... asteburu kaskarra izan da. Euskadi alerta egoeran zegoen eta Bizkaia aldean sortu dira larritasun egoerak. Gipuzkoari dagokionez Andoain izan da hedabideen jomugan. Benetako albiste bat zenean



Santa Krutz elizaren saihetsetik igarotzen da Leitzaran ibaia. Astelehenean ur maila handia zen, baina ez iragarritakoa bezainbeste. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Oria ibaiaren ertzean eman dute asteburua Teleberriko berriemaileek, eta tarteka Zumea kalean bertan eta metro gutxira zegoen Ernaitzan erreparatzea besterik ez zuten. Eskarmentu handia du Garikoitz Plazaolak, uholde kontuetan. Andoaindarrrek ikusi dute behin baino gehiagotan liburudendako erakusleioa huts-hutsa, ura bertan sartzen zenerako kalterik txikiena eragin zezan. Asteburu honetan ez du horrelakorik egin, ezta arrisku gehien iragarri zuten igande gauez ere. Zumea kalean bertan etxebizitzasorta berria eraikitzen ari dira, eta antza obraren ardura-dunak ez zeuden oso kezkatuta. Erreka aldera tamaina handiko edukiontzia bertan utzi zuten. Bolumen horrekin urak erraz mugitu zezakeelako Zumea kaleko garajeen ondoko zutoinetara. Hori bai litzateke arriskutsua!

Andoainen, eguraldiari lotuta, albistearen errepidean eta Leitzaran bailaran zegoen. N-1 errepidean, Amasa-Villabona eta Andoain



Ernaitza liburudendan erakusleioan ez zuten aldaketarik egin, igande gauez. Arriskurik ikusten ez zuten seinale. Eskarmentua duenaren jokabidea izan zen. AIURRI

artearen kazkabarra bortitza bota zuen tarteka, arriskua sortuz auto-gidarien artean. Leitzaran bailaran, aldiz, euriteen ondorioz luizia sortu zen bost eta sei kilometroen artean. Bidera tamaina handiko harriak eta lur kopuru handi samarra erori ziren, errepidea moztetako.

Behin Andoainera hurbilduta, albistearen ez zen eguraldia. Intzidentzia-tasa baizik. Goi-goian dago, inoizko intzidentzia-tasa handienarekin. Zumarraga eta Azpeitiarekin batera, okerren dagoen Gipuzkoako udalerria da. Mass medientzat, ordea, albistearen euritea izan zen.

Kezka eragin zuten egoerak



Larunbat goizeko irudia. Ekaitzarekin adi-adi gidatu beharra zegoen. AIURRI



Bolumen handiko edukiontzia arrisku bizikoa litzateke, uholde egoeran. AIURRI



Euri jasak luizia eragin zuen Leitzaranen, Txapela eta Inturiaga artean.

Benetako arriskuguneak Leitzaranen edota N1 errepidean sortu ziren, asteburuko ekaitzen ondorioz. Bestalde, Zumea kaleko eraikin berrian asteburu osoan zegoen edukiontzia arriskua eragin zezakeen, uholde egoeran urak aurretik eramango zuelako.



Galdara gela bete-betean jo zuen luiziak, azaroaren 25ean. AIURRI



Euriteek kale materialak eragin ditu Azkorte kaleko Egaperen eraikinean. AIURRI



Plazido Muxika plaza. UDALA

Plazido Muxika plaza estaltzeko bost proposamen

Epaimahaiak bost aukeretik hiru lehenetsiko ditu, eta azken erabakia herritarrena izango da

Erredakzioa URNIETA

Azaroaren 21ean amaitu zen ideien lehiaketa, eta, orotara, bost proiektu jaso dira. Udalak hiru teknikariz osaturiko epaimahaia lanean jarri du, egokienak iruditzen zaizkien hiru aukeratzeko. Zenbait irizpide izango dituzte kontuan: kalitate teknikoa, kanpoko itxura, inguruna egokitzea, materialak eta prezioa.

Azken erabakia herritarrena

Bizilagunek izango dute hiru aukera horien artean bozkatzeko aukera. Plazido Muxika plazaren eraberritzean azken hitza urnietarrena izango da.

Ezustekoa ikastolan

Egape ikastolako galdara-gela bete-betean jo zuen luiziak, ostegun iluntzean. Geroztik, berogailu elektrikoak instalatu dituzte Egape ikastolako geletan. Jangela zerbitzua bermatzeko ere kanpo enpresa bat arduratzen ari da

Erredakzioa URNIETA

Eraikina bere horretan ondo egon arren, kalte-ordainak eragin ditu eskolan azaroaren 25ean sortutako luiziak. Izan ere, ezin dute jangela-zerbitzua berrezarri; hortaz, catering enpresa bat ari zaie ikasleei bazkaria zerbitzatzen arazoa konpondu bitartean. Bestalde, eraikin zaharreko gasa berreskuratu dute eta urte gutxiago dituen blokean, berriz, berrezartze-lanetan ari dira. Hori horrela,

enpresa batek berogailu elektrikoak instalatu dizkie gela guztietan, egoerari aurre egiteko.

Eroritako harriak kentzen aritu da asteburuan Urnietako udala. Hala, egun, une honetan garbi dago kaltetutako eremua eta ezponda egonkortuta dago. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lanean jarraitzen du ikastetxeko zerbitzu guztiak lehenbailehen berrezartzeko.

Auziak zer esana ematen jarraitu zuen Urnietako Udalak azaroaren 30ean deitutako osoko bilkuran. Gertaera presente egon zen ordezkariak duten hiru alderdien artean. Bai PSE-EEK, bai EH Bilduk aitortza egin zieten ezbeharraren unean bertan ziren bi garbitzaileei. Hortik abiatuta Egape ikastolaren DBHko eraikinaren aferak eztabaidarako tartea piztu zuen, gai honen inguruan dauden ezberdintasunak azaleraziz.

Euriteen ondorioz gertatu zen

Ezustea arratsaldean izan zen. Larrialdietako Zerbitzuek aditzera eman dutenez, euriteen ondorioz eskola inguratzen duen horma erori ondoren jazo zen. Lur-jausiak gas-biltokia kolpatu eta, hodia hautsita, sutea eragin zuen. Garbitzaileak ziren bertan, eta haiek pasa zuten abisua. Suhiltzaileek gasa moztu orduko eten zen sutea. Ezbeharra izan eta berehala Segurado alkatea Azkorte kalera hurbildu zen, gertaeren jarraipena egitera.

Ate joka da Urnietan Gabonetako opari-txekeen kanpaina

Soilik herrian erroldaturiko bizilagunek parte hartu ahal izango dute On Bizi elkarteak antolatutako egitasmoan

Gabonetan erosketak areagotu egiten dira, eta urnietarrek herriko merkataritzan kontsumituz gero erosketa-txekek jaso ahal izango dituzte. Beti ere Gabonen ostean baliatu ahal izango direnak. Udalak eta On-

bizik abiatu dute kanpaina. Beraz, Gabonetan erosteak saria ekar diezaioke erosleari. Beti ere urtarilaren 8tik aurrera. Eta zein sari jaso dezake erosleak? Kanpainara batu den dena bakoitzak 20 euroko sei txe-

ke eta 30 euroko beste bat banatuko ditu. Zozketa bidez erabakiko dira irabazleak.

Kanpaina urnietarrei zuzenduta dago, udalerrian erroldatuta egotea nahitaezkoa baita.

Saltokien txanda, lehenik

Saltokien zerrenda osatuko du Urnietako Udalak, eta horretarako izen-ematea abenduaren 3an amaituko da: Kanpainan parte hartzeko 688 607 762ra hots egin edo mezua utzi beharko dute, WhatsApp bidez.



Zozketa bidez 20 eta 30 euroko txartelak eskuratu ahal izango dira. AIURRI



Eguraldia txarra izanik ere, dozenaka lagun elkartu zen larunbatean Goikoplazan. AIURRI

Andoaingo Saihesbidea berpizteko agerraldia

Kezkaz bizi du herritar talde batek Bazkardoko lotunean sortzen den arazoa konpontzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatu nahi duen egitasmoa. Antolatu egin dira eta larunbatean lehen agerraldia egin zuten, Andoaingo Saihesbidea aldarrikatzeko

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hauexek izan ziren aldarrikapen nagusiak, larunbateko ekitaldian:

- "Bazkardon trafikoak eragiten duen zarata- eta kutsadura-arazoak konpondu behar dira.
- Indarrean dauden 2011ko Andoaingo Hirigintza Plan Orokorrean eta 2016ko Donostialdeko Lurraldeko Zatikako planean *Andoaingo Saihesbidea*

egitasmoa txertatuta dago. Aldundiak eta Bidegik Bazkardoko arazoari irtenbide bat emateko lantzen ari diren egitasmoak alde batera utzi du saihsbidea, errepidearen zatikako moldaketetara mugatuz.

- Europako trafiko arazoari behin-behineko irtenbidea eman diezaiokeen alternatiba lantzen ari dira, baina zarata eta ku-

tsadura ez da herrigunetik aterako eta Plan Orokorra guztiz baldintzatuko da.

- Eskatzen diegu Udalari, Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari *Andoaingo Saihesbidea* egitasmoarekin jarraitzea.
- Bitartean, pantaila akustikoak jar daitezela Buruntza, Bazkardo, Mimendi, Karrika eta Sorabilla auzoetan".



Bdeo bidezko agerraldia egin zuten, astearte eguerdian. UDALA

Aurrekontu parte hartzaileen emaitza aditzera eman dute

Jasotako 836 botoetatik 793 ontzat eman dira. Boto gehien igerileku irekia egiteko proposamenak jaso du

Erredakzioa ANDOAIN

2022ko Udal aurrekontuetatik 250.000 euroko partida zertan inbertitu herritarrek erabakiko zutela iragarri zuten. Prozesua amaitu da, bozka gehien jaso duten bost proposamenen aurkezpenarekin. Hauek dira:

1. Igerileku irekiaren lehen faseari ekitea, kirol-instalazioen atal gisa. 95.000 euro.
2. Adinekoak teknologia berrietan trebatzeko programa, gazteen laguntzarekin. 20.000 euro.
3. Leitzaran ibaian bainu-eremu naturalak egokitzea. 10.000 euro.

4. Errotagainen hasi eta Karrikaraino iritsiko litzatekeen oinezkoentzako ibilbidea diseinatzea. 12.000 euro.
5. Adunan ireki duten moduko ur parkea, aisialdirako erabiliko litzatekeena. 250.000 euro.

Alkatearen eskertza

Maide Lainez pozik agertu da esperientziarekin: "Eskerrik asko Andoaingo herritar guztiei lehen aurrekontu parte-hartzaile hauek izan duten inplikazio eta parte-hartze handiagatik. Pizgarri handia da beste urte batzuetan garatzen jarraitzeko".



AIURRI

Ohitura onak ezin dira galdu

Bada Andoain edukiontzietatik giltza kentzeko eskatzen duen herritarrik. Ez dira gutxi, antza. Horien artean egongo dira, ziur asko, zabor poltsa lurrean uzten dutenak. Bada, Udalak ohitura txar horri prezioa jarri dio. 320 tona dira eta 60.000 eurotako da horien tratamenduaren kostua. Udalak sentsibiltate kanpaina jarri du martxan, Mankomunitatearekin batera.

Sari hauek irabazi nahi?

Abenduaren 6tik 22ra
Erosi Andoaingo dendetan
eta bonu hauen zozketan
sartuko zara

- 500€ko sari 1
- 200€ko 5 sari
- 100€ko 10 sari

3 bidaia esperientzia

Abenduaren 13tik
aurrera erosi Andoaingo
dendetan eta saski
hau zurea izan daiteke

SALKIN



Triana elkartearen gazteen lau dantza taldeak elkarrekin, 1990eko hamarkadaren hasieran. Goian, zutik: Alex Tello, Jenifer Romero, Andres Guerrero, Alvaro Gil, Elizabeth Sanguino, Jenifer Rodriguez, Sergio Ávila, Jose Correas, Nerea Bellido eta Jonatan Hinchado. Erdian, zutik: Nerea Lanceta, Estefania Sanguino, Amparo Moreno, Irene Cerrato, Ana Belen Sanguino, Soraya Tello, Anabel Valor, Olga Martin, Ines Ferro, Estrella Sanguino, Guadalupe Uzkudun eta Raquel Diaz. Makurtuta: Eli Gonzalez, Jessica Manero, Sara Jimenez, Monica Avila, Sheila Correas, Maddalen Sanguino eta Nuria Avila. **TRIANA**

Triana taldearen agurra

Triana elkarteak desagiteko erabakia hartu berri du, hiru hamarkadako ibilbidearen ostean. Andoaingo kultur bizitza urritzen duen albistea da, zalantzarik gabe. Tomas Cuerva, Estela Perez eta Antonio Sanguino herrikideak dira elkarteko hiru bazkide

Xabier Lasa ANDOAIN

Elkarteak Nafarroa plazan urtetan eta urtetan zabalik eduki duen egoitzan topatu dugu hirukotea, barrualdea hustutzen. Errentan eduki dute, eta orain, tresneria eta traste handiak ateratzen ari dira. Errenterian Andaluziako kultura sustatzen duen Aljarafe elkarteak jasoko du material hori guztia.

Estela Perez elkarteari buruzko datu edo mugarri esanguratsuenak gogoratzen hasi da: “Triana elkartea, berez, 1990eko hamarkadaren hasieran jarri zen abian. Ofizialki, 1994ko maiatzaren 24an eratu genuen elkartea, 180 bazkiderekin. Nafarroa plazako egoitza berriz, handik bi urtera ireki genuen: 1996ko abenduaren 24an”.

Perezek berak jarraitu du, elkartearen xede nagusia zein izan zen argitu asmoz. “Andaluziako kultura, folklorea, gastronomia eta abar zabaltu eta sustatu nahiak bildu gintuen guztiok”. Sanguinok bazkideen jatorriaren gainean Andoainen askok eduki dezaketen uste okerra argitu nahi izan du: “Bada harritzen den jenderik esaten

diogunean orduko bazkide guztien artean, bakar-bakarrik 13-14 ginela jatorriz andaluziarrak: gainerakoak estatuko komunitate askotan sortuak ginen, baita Euskadin ere, eta ezerk batzen bagintuen, hori Andaluziarekin sentitzen genuen atxikimendu berezia zen”.

Desagertzearen zergatia

Nabaria den tristeziarekin azaldu dituzte elkartea desagiteko erabakia bultzatu duten arrazoiak. Ekonomikoa, lehenbizikoa. “Bi urtez geldirik egotera behartu gaitu pandemiak. Diru-sarreak eragin ohi zigun ekimenik ezin izan dugu antolatu, txosna Andaluziako jan-edanekin, batik bat. Udaletik diru-laguntza jasotzen genuen, baina aktibitatek ezean, iturri hori ere agortu zaigu pandemia garaian. Eta, bien bitartean, alokairuan hartutako egoitzaren errenta ordaintzen jarraitu behar izan dugu, eta baita beste hainbat gasturi (argia, ura, dantza-taldeen

jantzien mantenua...) aurre egin behar ere! Egoera larriari erantzuteko bazkideen kuota igo egin genuen orain urtebete, baina horrela ere ezin izan diogu aurre egin arlo ekonomikoari”.

Elkartearen antolakuntzarako jende faltak ere erabaki mingarria hartzea eragin duela aitortu dute. Hala dio Tomas Cuervak: “Antolaketa lanetarako jendea falta izan zaigu. Egia da ekitaldi edo jaialdiren bat etorri aldiro, laguntza puntaletarako, jendea erruz agertu izan dela boluntario gisa; gainerako bazkideek ere parte hartu izan dute ekitaldietan, eta biziki eskertu izan dugu hori, elkarte baten bizitasuna islatzen baita horrela. Baina zailtasunak hasten dira urte osokoa den lan isileko zuzendaritzan parte hartu behar denean. Eta, horretarako, nekez arrimatu izan da jendea”. Boluntarioen gabeziarekin lotuta, atzetik etorriko zen gaztediaren inplikazioa ere falta izan dela gaineratu du Cuervak.

“Azkenean, jende berbera egon gara elkartearen gurdia tira-ka urtetan, eta nekagarria da hori; aurrera goaz, jubilatzen ari gara poliki-poliki gutako batzuk, eta nahiz eta Trianaren sorrerako helburuekiko ilusioa ez dugun galdu, jada ez dauka- gu orain 15-20 urte geneukan sasoia”.

Cuervak ohartarazi nahi izan du nahiko orokorra dela Trianak jasan duen gaitz hori. “Asko mugitu gara Gipuzkoako beste herrietan etxe erregionalek antolatzen dituzten jaialdiek gonbidatuta, eta gehien-gehienetan antzeko errealitatea sumatu dugu: alegia, eragile ber- berek jarraitzen dutela elkarte- antolakuntzan, ez dela belau- naldien arteko erreleborik ger- tatu”.

Trianako hiru kideek gehitu dutenez, ez dago Andoaindik atera beharrik errealitateaz jabetzeko, nahikoa ei da erre- paratzea bertako hainbat kultur eta gizarte taldeen barne dina- mika.

Triana elkarteak, hastapene- tik, kultur izaerako elkarte- a izatea erabaki zuen, printzipio horri eutsi dio beti, eta, zori- txarrez, horrek ere ez du gehie- gi “lagundu” elkartearen zabal- kundan, Sanguinoren iritziz. “Elkarte gastronomikoa izatea erabaki genezakeen, Nafarroa plazako egoitzak bai baitauka espazioa mahai ugari jartzeko eta lizentzia sukaldea edukitze- ko. Baina hortik jo beharrean, kulturaren aldeko apustua egin genuen, dantzarako tokia izan- go zen oholtzari eman genion lehentasuna. Gastronomiaren ikuspegitik jo izan bagenu, ziur asko arrakasta handiagoa izan- go genukeela, eta gaur ez gine- la Trianaren heriotzaz mintza- tzen ariko”.

Hazia, neska-gazte talde bat

Urtetan atzera joanda, esan daiteke Triana elkartearen ha- zia, Andoaingo neska gazte batzuk jarri zutela, Lourdes Motiño irakaslea gidari zutela sortu zuten Andaluziako folklo- reko taldearen eskutik. 90eko hamarkadako hasieran izan zen hori, eta Estela Perezek adie- razi du fama handia hartu zue- la taldeak, telebistan dantza- tzearen poderioz. “Jose Luis Morenoren ETB2n programa bat aurkeztu zuen, eta Manolo Escobar eta antzeko Andaluzia-



Tomas Cuerva, Antonio Sanguino eta Estela Perez Trianako kideak urtetako jaialdien oroigarriak ondoan dituztela. AIURRI

ko folklore ukituko artistak ekartzen zituenean, haiekin batera atzean dantza egiteko deitzen zion Andoaingo talde- ari. Denbora berean, Young Play diskotekan eta modako beste zenbait tokietan ere emanaldiak eskaini zituen taldeak”.

Talde hura gorpuztu zuten zenbait dantzariekin gogoratzen da Estela. “Amparo Moreno, Estrella Sanguino, Irene Cerra- to, Olga Martin, Ines Cerro, Soraya Tello, Mari Luz Uribe- salgo, Susana Arbiol... 17-18 urteko neskatoak ziren, eta egundoko kalitatea eta grazia erakusten zuten oholtza gainean. Andoaingo Goikoplaza inguru- ko zenbait tabernek sotoa edu- kitzen zuten eskailerak jaitsita, eta bertan entseiatzen zuten. Era horretan, taberna asko (Goy, San Martin, Komunistena...) hartu zituen egoitza gisa gazte taldeak”.

Lasterrera, Andoainean Andalu- ziako kultura maite zuten herritarrek biltzea lortu zuen dantza taldeak, eta 1991ean, baita Triana elkarte- a sortzea lortu. “Doktor Huitziko etxabe batean hasi ginen biltzen; irra- ti-afizionatuen elkartearekin partekatzen genuen egoitza orduan. Horrela atontzen joan zen elkarte- a, eta 1994an jada

"ELKARTEAN KULTURAREN ALDEKO APUSTUA EGIN GENUEN, DANTZARI TOKIA EGINEZ"

estatutuak osatu, bazkide kan- paina egin, eta elkarte gisa erregistratu egin genuen”, go- goratu du Estela Perezek.

Dinamika indartsua eragin zuen lehenbiziko urte haietan 180 bazkidez osatzera iritsi zen Triana elkarteak. “Neskato eta mutikoen lau dantza taldek funtzionatzen zuten: Triana, Marea Brava, Al Alba eta Ro- cieras de Triana. Irakaslerik gabe jarduten zuten gazteek; euren artean aritzen ziren ira- kasten eta ikasten, eta egundo- ko koreografiak sortzen zituzten. Aktuazioak non eduki, jarrai- tzaile ugari eramaten zuten atzetik”.

Kultur giro aberats hori po- liki-poliki gainbehera joan zen urteen poderioz, baina. “Ikas- ketak, bikotea, lan-ordutegia, familia... Badakizu nola diren gauzak: gazteei bizitza konpli- katzen hasten zaie, eta orduan zirkunstanziaz pilatzen joaten zaizkie ezin eutsi ahal izateko entseguen eta emanaldien di- namikari”.

Gazte ugariren faltan, helduez osatutako bi taldek iraun dute elkartearen aterpean, azken urtetan: Triana Abesbatza Ro- ciero eta Triana y Ole dantza taldea.

Makina bat ekimenen sustatzaile Triana elkarteak bizitza oparoa erakutsi izan du hiru hamar- kadetan. Cuervak, Perezek eta Sanguinok, atzera begira jarri- ta, zehaztu dute elkarteak eki- taldi ugari antolatu izan ditue- la urtez urte. “Urtean, hiru

hitzordu sakratu baziren, gure egutegi partikularrean: Andalu- ziaren Eguna (otsailaren 18), Apirileko Feria eta Herrien Jaia (Hogar Extremeño elkar- tearekin elkarlanean). Egia esan, Gipuzkoan nortasun andaluzia- rra daukagun elkarte guztiek antzeko egitarau finkoa izaten dugu, eta gonbidapenak nonahi- tik jaso izan ditugu dantza eta musika emanaldiak eskaintze- ko; horrela, eromena izan da apirilak, maiatzak eta ekainak osatutako hiruhilekoa, hamar- kadetan. Gustura ibili bai, bai- na beste edozertarako denbo- rarik ezin eduki!”.

Harrotasun puntu bat ezin ezkutaturik, izaera eta formatu desberdineko ekitaldiak zerren- datu dituzte arrapaladan: hala nola, dantza eta abesbatzaren emanaldiak han hemen (aipatu tako egun seinatueta, San Juanak, Zahar egoitza, Gipuz- koako elkarte andaluziarren egun bereziak, Gipuzkoako Etxe Erregionalen Jaialdi folkloriko- gastronomikoak...), ongintzako kontzertuak, Andaluziako kul- tura edo migrazioa hizpide zi- tuzten hitzaldi eta mahai ingu- ruak, inauterietan konpartsa...

“Guztiekin ere ahalegin berezia eskatu badigute ere, gozatu ede- rrak hartu izan ditugu eta he-

"AGURRA IRAGARRI DUGUNETIK MAKINA BAT LEKUTATIK JASO DITU GU MEZUAK"

Eskertza sareetan

Triana Andoain 2021-XI-21

"Eztarran korapilo bat dugula jakinarazten dizuegu Triana elkarteak ateak itxi dituela. Urte askotako lana izan da, eta izugarri aberastu gaituena. Une ahaztezinak utzi dizkigu, eta pozik gaude zuen guztien babesa aurkitu dugulako. Beste bat arte, agurrak duen onena berriro elkartzea baita. Eskerrik asko lagunok, eta beti arte!”.

rritarrek goza araztea lortu dugula iruditzen zaigu. Horre- xegatik, oroitzapen gozoe- kin geratzen gara. Beharbada, satis- fakziorik handiena, 2018ko aben- duan Basteron Gora Kaletxiki Bandarekin elkarlanean antola- tu genuen ongintzako jaialdia izan daiteke, kontuan hartuta zein zen bere helburua (minbizia duten hurrekin lan egiten duen Aspanogi elkarte- a laguntzea) eta Andoaingo herritarrek eman zituzten erantzun bikaina”.

Gora Kaletxiki Banda aipatzen hasita, hiruek ere herriko hain- bat kultur taldeekin edukitako harremana azpimarratu nahi izan dute. Beti egon gara prest elkarrekin lan egiteko, eta gu- rekin ere berdin jokatu izan dute; azken batean, beti eduki dugu argi herriaren kulturari eta bizitzari ekarpena egiteko jaio ginel”.

Esker oneko mezuak, agurra iragarri zutenetik

Makina bat mezu jaso dute Tri- ana elkarte- a desagitea zihoala publikoki iragarri zutenetik. “Gipuzkoako eta Andoaingo kultur elkarteek, elkarte gas- tronomikoe- k, alderdi politikoe- k, norbanakoe- k... makina bat le- kuetatik jaso ditugu mezuak, eta denek ere atsekabea adie- razteaz eta gurekin igarotako une atseginak gogoratzeaz apar- te, eskertza luzatu digute urte- tan herri kulturaren alde mu- sutruk lanean aritu garelako. Emozio handia eragiten diguten mezuak dira, eta bihotz-bihotzez estimatzen ditugu”.



Plazaola kalean du egoitza Andoaingo AEK euskaltegiak. AIURRI

AEK euskaltegia, euskararen arnasmune

2017ko irailean ireki zituen ateak Andoaingo Euskaltegiak, Plazaola kaleko etxabea. Horrekin batera, euskara ikasteko eta sustatzen jarraitzeko aukera emango zuen gunea zabaldu zen

Mikel Arberas ANDOAIN

Urtetik urtera, gehiago dira euskara ikasi edo maila hobetu nahi duten herritarak. Horretarako, Andoaingo AEKra jotzen dute askok. Datu gehiago emate aldera, 2021-2022 ikasturtean 163 herritarrek eman dute izena euskaltegian eta 16 talde sortu dira. Ikasle kopuruaren gorakada medio, 10 taldek Andoaingen bertan ikasiko dute eta sei talde inguruko herrietara lekualdatu dituzte. Euskaltegiko langileak pozik agertu dira euskara ikasteko herritarrek eduki duten

interesarekin, asko baitira, euskara traba bat baino, etorkizunera begirako aukera gisa hartzen dutenak.

Ildo beretik jarraituz, Andoaingo AEK-k A2 eta B2 euskara mailak lantzen ditu. Herritar ugari eman dute hutsetik eus-

HERRITAR UGARIK EMAN DUTE HUTSETIK EUSKARA IKASTEKO PAUSUA

kara ikasteko pausua, eta baita orain arteko hizkuntza maila hobetzekoa. Horrez gain, autoikaskuntzarako aukera ere ematen du euskaltegiak, eta pandemia garaian areagotu egin da baliabidea aintzat hartu dutenak; zehazkiago esanda, 21 ikasle ari dira metodologia hori oinarri euskara ikasten.

Euskararen zabalkundea

Ikasleen aniztasuna areagotzen ari da, bai adinari, bai eta jatorriari dagokionez. Askok adinarekin kontua alde batera utzi eta

euskara ikasteari ekin diote; esaterako, Jon Roldan eta Itziar Barrondo andoaindarrak. Lehenak erretiratu bezain pronto euskaltegian izena ematea erabaki zuen: “Familian guztiek euskaraz egiten dute, baina nik ikastaro eta ikasketa guztiak gaztelaniaz egin nituen. Beraz, ohartu nintzen, euskaraz mintzatzeko gai izan arren, gramatikari buruz ideiarik ez nuela. Hortaz, erretiroa hartzearekin batera, AEKn izena eman nuen”. Barrondok euskara ikasteko premia sumatu zuen, familia andoaindarra izanik euskaraz ez zekiela: “Nire familia andoaindarra den arren ez dakit euskaraz hitz egiten. Gainera, nire semeek ez didate euskaraz hitz egin nahi, ez dakit zergatik. Gauzak horrela, ahal nuenean euskara ikasiko nuela zin egin nion neure buruari”.

Esanak esan, geroz eta euskaldunberri gehiago entzun eta ikus daitezke kaleetan; batetik, bertako hizkuntzak ateak irekitzen dizkielako. Bestetik, senitartekoekin eta lagunekin komunikatzeko garrantzitsua dela ohartu direlako. Itziar Barrondok aitortu zuen “berak lan egonkorra” eduki arren, euskarak ate ugari irekitzen dituela eta nahigabea ematen diola gaztetatik ez ikasi izana. Edozer dela ere, aurrerapausoa eman eta euskara ikasteari ekin diote, nork bere arrazoieak edukita.

AISA ikastaroa eta Uler-saioak

AEK hainbat berrikuntzekin dator ikasturte berrian. Batetik, etorkinei begirako ikastaroa martxan jarri du, horiek euskararen oinarriko ezagutza izan dezaten, baliagarria izango zaie-lakoan ikasketei eta lanei begira. Bestetik, Uler-saioak izeneko proba pilotua jarri du martxan Andoaingo euskaltegiak, Udalarekin elkarlanean. Urritik otsailera bitarte ulermen baina lantzen ez den 60 orduko ikastaroa egingo dute sei ikaslek, ikastaroa egin ostean ulermen atalean A2 maila lortzen duten ala ez jakiteko.

AUTOIKASKUNTZARAKO AUKERA ERE EMATEN DU EUSKALTEGIAK ETA AREAGOTU EGIN DA PANDEMIA GARAIAN



Olatz Peñagarikano. AIURRI

Mintzalagunak egitasmoa indarrean da

Aurten zehazki 44 lagun parte hartzen ari dira, eta AEK-ko Olatz Peñagarikano Mintzalagunakeko koordinatzailea gustura dago jendartearen egitasmoa ezagutzen ari delako.

Euskaldun berri ugari erakartzen al ditu Mintzapraktikak?

Azpimarratu nahi genuke ez direla soilik euskaldun berriak etortzen. Euskaraz aritzeko beharra sentitzen duen edonor hurbiltzen da eta hurbildu daiteke, praktikatu nahi duena edozein arrazoi tarteko. Baliagarria da ahazkotasuna lantzeko, presio gabe eta egoera akademikotik kanpo. Ikasteko eta dakitena hobetzeko. Konpromiso hori sentitzen dute dakiten horri zukua ateratzeko.

Ikasteko gogo bizia erakusten al dute parte hartzaileek?

Ez genuen uste, baina partaideek ondo erantzun zuten. Egoera hobetzearekin batera berriz jarri ginen martxan. Beste batzuek, ordea, telematikoki mantendu zuten hitzordua. Gaur egun pandemia egoerarekin ohitu gara eta ikusi dute posible dela elkartzeko jarraitzea, segurtasun neurriak hartuta. Poztekoa da zentzu horretan erakutsi duten konpromisoa eta jarrera ona.

"Euskal Ligara igotzea da gure nahia"

IRATI ZINKUNEGI URNIETA QUEL ABOGADOS SENIOR MAILAKO NESKEN JOKALARIA **ESKUBALOIA** Ez du norgehiagoka bat bera ere galdu Urnietako taldeak. Eskarmentu handiko jokalaria da Irati Zinkunegi

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zazpi partida, zazpi garaipen. Bola-da ezin hobea, ezta?

Bai. Talde berri asko daude lehian, eta gurea ere, jokalariei dago-kionez, asko aldatu da. Denboraldi hasieran, lehen lau postuetan izatea genuen helburu, baina, egia esan, ez genuen espero partidurik ez galtzea. Egia da sailkapenean behekaldean dauden taldeen kontra jokatu dugula.

Zaila al da lehenengo postuari eustea?

Jakina. Orain arte, beste bizpahiru talderekin egon gara berdin-duak (Leitzaran eta Elgoibar, besteak beste), ez baitzuten partidurik galdu. Aurkari zailak dira horiek: Andoainen kasuan, esaterako, bi urte egon dira taldea atera ezinean. Aurten, jokari gazteak daude eta oso sendo dabilta. Bestalde, iragan denboraldian ez genuen Elgoibarren aurka jokatu eta lehiakide onak dira, baita Eibarkoak ere.

Nolakoa da zuen asteroko jarduna?

Partiduetan lehiakor izateko entrenamendu serioak egin behar dira. Astero hirutan batzen gara, ordu t'erdiz entrenatzeko: fisikoki garrantzia ematen diogu, alegia, indarra lantzeari, ondoren, lesiorik izan ez dezagun. Horrez gain, postu jakinei bideratutako ariketak ere egiten ditugu. Aldi berean, taldean plantilla zabala izateak ere bihurtzen gaitu lehiakor. Aurreko urteetan, justu xamar ibili izan gara: aurten, oster, gehiago gara eta aldaketak egiteko aukera ematen digu horrek.

Pandemiak eraginik izan al du aurtengo denboraldian?

Aurten ez dugu hainbeste nabaritu. Joan den denboraldian gehiago antzementzen zen, 2020an bat-batean eten zelako guztia eta, hori dela eta, gogo handiz zen jendea. Finean, aurreko ikasturtea "normaltasunez" egin genuen: gertutasunaren arabera erabaki ziren ligako taldeak. Orain, Gi-



Irati Zinkunegi Urnietako jokalaria. UKE

puzkoa osoko 13 taldeak gaude guztiak batera, eta lehiakide berriak sortu dira. Maiatza bitarte joan-etorrian arituko gara, eta lehenengo gelditzen dena kategoriaz igoko da.

Positiboen agerraldiei dago-kionez, ez dugu inolako arazorik izan. Egia da pasa den denboraldian jarduna asko mugatzen zutela neurriek, izan ere, gune gorrian sartuz gero, bertan behe- ra gelditzen ziren entrenamenduak.

Egun, ba al da ikuslerik zuen partidetan?

Berez, herri guztietan posible da ikusleak egotea. Urnietaren kasuan, obratan da kiroldegia, eta harmailak ipinita daude, baina eraikuntza-lanen artetik pasa behar denez gero, ez dugu baimenik. Hala, hutsunea somatzen dugu etxean jokatzen dugunean, animoek eragina dutelako gudan. Ea, behintzat, datorren urteari begira, jendearen berotasunarekin amaitzen dugun denboraldia. **Zein da aurrera begirako erronka Quel Abogadosentzat?**

Azken urteetako nahia egi bihurtzea dugu erronka: Euskal Ligara igoera. Igoera-fasean aritu izan gara maiz, baina ezin izan

Iñaki Ibañez entrenatzailea, pozarren

"Oso emaitza onak eskuratu ditugu, partida guztiak irabazi ondoren. Azken asteburuetako taldeen aurka apur bat gehiago kosta bazaigu ere, asmatu dugu erantzuten. Liga gogorra aurreikusten dut: 7 partida jokatu ditugu, baina, oraindik 17 ditugu aurretik. Oso luzea da, eta igoeraren saria lehenengo gelditzen denak eskuratzen du soilik. Talde-jokoa sendotzea falta zaigu, lehen postuetan mantendu nahi baldin badugu.

dugu inoiz garaipena eskuratu. Aurten, erronka nagusia igoera da. Inportantea da ulertzea talde bat garela eta ez dagoela jokari bat bestearen gainetik. Bertute horixe da gure erronka lortzeko gako nagusia.



ORIAMENDI

Lehiakortasun handia

ERREMONTEA Ansak eta Martirenak lanean jarraitu beharko dute Binakako Txapelketan lidergotzari eutsi nahi badiote; izan ere, lehiakortasun handiko txapelketa izaten ari da, eta aurkariak gogor estutzen ari dira sailkapena.



UKE

Gipuzkoako txapelketara

ESKUBALOIA Jubenilak lehen faseko taldeko txapeldun bilakatu ziren Amenabar taldeari irabazi ostean (23-27). Azken partida jokatu zuten urnietarrek eta lortutako garaipenari esker berriro ere Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira. Gizonezkoen senior taldeak puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuen, Legazpiren aurka berdindu ostean (24-24).



Andoni Urbistondo URNIETA

Batzuk, Asier Martinezek eta Juan Luis Gomezek bi ordu eta erdi azpitik. Beste batek, Igor Amantegik, 2.45 azpitik, eta lau-garrenak, Adrian Garcia Mele-rok hiru ordu azpitik. Denek bete zuten euren helburua, eta The A Team, A taldea telesail ezaguneko protagonisten pare jardun. Nola ahaztu Hannibal Smith-ek atal bakoitzaren bu-kaeran esaten zuen esaldi fama-tu hura, 'gustatzen zait planak ondo ateratzea' (*I love it when a plan comes together*, ingelesez). Halaxe sentitu ziren Martinez, Gomez, Amantegi eta Garcia. Denak pozik, aurreikusitakoa ondo atera zelako. Minberatuta, baina pozik.

“Oso pozik nago. Hankak txi-
kituta dauzkat, baina ahaleginak
merezi izan du. Hiru urte nera-
matzan egun on honen bila, eta
lortu dut. Ez nuen espero hel-
burua betetzea, are gutxiago
egin zuen eguraldi kaskarrare-
kin. Eguraldi onarekin akaso
bai, baina zorionez ondo atera
zen”. Martinezen hitzak dira.
Maratoi erdia 01:14:53 denboran
pasa zuten berak eta Gomez
kideak, eta hor hasi zen lehen
kalkuluak egiten: “02:31tik jais-
tea zaila izango zela pentsatu
nuen”. Bigarren maratoi erdia,
ordea, lehenengoa baino azka-
rrago egin zuen Asierrek: “Bikain
sentitu nintzen 36. kilometrora
arte. Hortik aurrera... luze. Ko-
meriak, eta azken hiru kilome-
troak, izugarri luze. Dena eman-
da egin nituen. Sentsazioa neu-
kan behar baino mantsogo
nindoala, segundoak galtzen,
baina erlojuari begiratu eta kon-
trakoa esaten zuen, erritmo
egokian nindoala, kilometroak
ondo ari nintzela osatzen 03:32
inguruan”. Eta behin Anoetako
pistara sartuta, emozio leherke-
ta. “Etxekoak zeuden han, Na-
gore emaztea, lagunak han...
oso polita izan zen, hunkigarria!”.

02:29:26 egin zuen Martinezek.
10 segundo geroago helmugara-
tu zen Juan Luis Gomez kidea.
Elkarri besarkatu zioten, noski,
lanak bukatuta. Maratoi ko-
taketa egiteko eskatu diogu
Martinez: “Hasiera urduria
izan zen. Kamiseta termikoare-
kin atera edo ez zalantza izan
genuen. Gabe atera ginen kale-
ra, eta justu irten ginenean,
zaparrada latza. Xira eman nion
Jon Morandeira lagunari, eta
dardarka nengoen, hotzak jota.



Asier Martinez eta Juan Luis Gomez urnietarrak, helmugan. Nekatuta, baina pozarren. MARTINEZ

Pentsatutako guztia ondo ateratzen denean

ATLETISMOA Aiurrik elkarrizketatutako lau urnietarrek euren helburuak bete zituzten maratoian, eta oinazeak oinaze, gustura pasatu zuten biharamuna. Martinez zazpigarren sailkatu zen, eta Gomez zortzigarren. Biak ere 2:30:00 azpitik

Lasterketa hasita, joan behar genuen taldean sartu ginen, eta indarrak gordetzen egin nuen bidea 22. kilometrora arte. Erbia kendu zen, eta bizpahiru lagun erritmoa jartzen hasi ginen orduan. 30. kilometroan hiru lagun geratu ginen, eta 32.an Juan Luis geratu egin zen metro batzuk. Itxaron nion, baina tiratzeko esan zidan”. Martinez ondo zihoan, baina 36. kilometroan laino ilunak agertu zitzaizkion begi aurrean. Ondoan zeukan korrikalariak puntutik atera ote zuen susmoa dauka, datuak errepasatuta. “Denborak ikusi-ta jabetu naiz kilometro bat edo bi 03:27 erritmora egin genuela, azkarregi niretzat”.


Sei kilometro baino ez. 38. kilometroan gel bat barrura: “Ez neukan gogorik, baina Jokin Lizeaga entrenatzaileak esan zidan sei eramateko, eta denak barrura”. Pasadizo bat ere izan zuen beste gel batekin, lehenago, 30. kilometroaren bueltan. “Hatzak sentsibilitaterik gabe neuzkan, hotzagatik, eta saiatuagatik, ezin nuen gel-a maillotetik atera. Ernegatu egin nintzen, bi-

**ERAKUSTALDIA
ESKAINI ZUTEN
BI URNIETARREK,
TOP HAMARREAN
SARTUZ**

raoka, eta Juan Luisek atera behar izan zidan poltsikotik gela. Eskerrak!”.

Idatzitako gidoi perfektua

Ez zuen bi ordu eta erditik jais-teko ziurtasunik izan inoiz: “Ez, edozein momentutan ezinak jo eta minutua 04:30ra egiten du-lako. Ezin da kalkulurik egin azken metroetan sartzen zaren arte. Buruak lan handia egiten du, eta mantsu nindoala esaten zidan. Eta ni kontra egiten, nola edo hala. ‘Eman Asier, entrena-tu duzun guztiarekin orain ezin duzu amore eman’, eta antzeko mezuak bidaltzen. Unai anaiak aurreko gauean esandakoa ere gogoratu nuen, zenbat kostatu



Donostiako Maratoia 2021

Top hamarrean bi urnietar.

Urnieta

Asier Martinez	2:29:26
Juan Luis Gomez	2:29:36
Igor Amantegi	2:44:36
Adrian Garcia	2:55:36
Inigo Andres	3:14:53
Idoia Esnaola	4:58:30

Andoain

Axier Etxeberria	2:52:37
Iban Muñoz	2:54:02
Iker Telletxea	3:08:40
Unai Iriondo	3:09:00
Alberto Britos	3:11:52
Asier Dominguez	3:13:03
J.Carlos Solana	3:38:19
Beñat Sarasola	3:38:19

zaidan helmugara iristea, eta horrek bultzada eman zidan”. Mini estadioan sartuta Jokinek esan zidan lortuko nuela, jait-siko nintzela 02:30tik, eta helmu-ga pasa eta mundua erori zitza-idan gainera. Jota, baina pozarren. Idatzitako gidoi perfektua beza-lakoa izan zen eguna”.

Bazkari oparoa egin zuen fa-miliarekin, Juan Luis laguna-rekin kopatxo bat arrats-iluntze partean, ospatzeko, eta orain atsedena. Merezitakoa. “Geratu egin behar dugu pixka bat. Ma-ratoi erdiren bat prestatuko dugu martxoa alderako edo, marka on bat egiteko, baina orain atsedena, Gabonak arte edo”. Etorkizunari begira, ma-ratoiak lotu egin duela onartzen du, gustatuko litzaiokeela urtean bat ondo korritzea: “Sevillakoa, Valentziakoa, politik dira, az-karrak, marka on bat lortzeko modukoak”. New York-ekoa ez? “Joder, txarra ez, familia guz-tiarekin han...”. Bi ordu eta erditik jaistea ere ez zuen espe-ro...

Amantegi: “Ikaragarri sufritu dut, baina pozik nago”

ATLETISMOA Hurrengo urtean 2 ordu eta 44 minutuko denborari tarte handia kentzea du buruan

Andoni Urbistondo URNIETA

Andoainen bizi den urnietarrak txikituta dauzka aduktoreak. Ikaragarri sufritu zuela onartzen du, “batez ere azken zazpi kilometroetan, baina pozik nago. Maratoi erregularra egin nuela uste dut. 02:40ko langa tentagarria zen, baina errealista izanda banekien burua ez neukala denbora hori egiteko. Hobetzeko tarte handia daukat, eta hurrengo urtean 02:44 horri tarte handi bat jateko asmoarekin presatuko naiz”. Giroa ona izan zen korrikalarientzat: “Hotzik ez nuen pasa, eta esperientzia ona izan da, errepikatze modukoa. Ikuslearentzat kaskarra oso, eta horregatik bertaratu ziren guztiei eskerrak eman nahi nizkieke, batez ere Leire emazteari eta bi hurrei, arrebari, Jon Morandeirari... Horien hauspo-

rik gabe azken zazpi kilometroak egiteko gai izango ote nintzen ez dakit”.

Zorionak eta eskerrak ematen hasi da, eta noski, 02:30etik jaitsi ziren bi herrikideei ere zorion mezua: “Latza da Asi-k eta Juan Luis-ek egin dutena, ikaragarria! Egin zutena ez dago profesionalak ez diren korrikalari askoren eskura. Asko entrenatu dute, eta helburu bat jarri eta fin-fin lortzea baino gauza hoberik ez dago, beraz zorionak”.

Zorionak denei, beraz!

“HOTZIK EZ NUEN PASA. ESPERIENTZIA ONA IZAN DA, ERREPIKATZEKO MODUKOA”



ZUMETARRA

Zumeatarrakoak lan eta lan

Hain ibilbide luzeko proba prestatzeko eskulana behar izaten da, eta oraingo honetan bolondresen artean Andoango Zumeatarra Kirol Elkarteko kideak aritu ziren. Taldeko argazkian ikus daitekeenez, kide kopuru polita batzea lortu zuten. Lasterketa burutzeko ezinbestekoa da itzalpeko lana egitea. Hori ere bada meritua, are gehiago eguraldia hain petrala denean.



IRITZIA

ADRIAN GARCIA MELERO URNIETA

Adiskidetzea

Gatazkatsua izan da orain arteko harremana. Arantzatsua. Donostiako maratoia korritzeko hiru saialditan, beste horrenbeste huts. Nahi eta ezin. Lehenengo bietan, dortsala bai, baina min hartuta, ezin irteeran egon. Hirugarrenean, 24. kilometroan etxera. Denetan hiru ordutik jaistea zerumugan.

Lezioa ikasita, laugarrenean behar zuen izan. Entrenamenduetan inoiz baino hobe; marka lasai lortzeko esperantza franko. Azken astera arte. Ostegunean, korrikaldi lasaia; ziztada ezker bikian, eta min hartuta etxera. Herrenka. Biharamunean, fisioterapeuta. Hausturarik ez, baina ezker hankako soleoa puztuta. Jostorratzak muskulua lasaitzeko. “48 ordu dauzkazu. Igandeko beharko zenuke prest egon”.

Ostiralean, oraindik herrenka. Larunbatean, min gutxiago. Eguraldiaren iragarpena hizpide inguruan. Bost axola elurra botatzen badu ere. Minik gabe korri egitea, zer-nolako pribilegioa. Igandean, lasterketa eguna: beldurra. Berotzen hasi, eta ziztada txiki bat ezker oinarekin zapaldu orduko. Irteeran uzkur. Euria eta hotza. Hasi aurretik, blai. Gutxienekoa da hori. Eutsiko al dio soleoak? Noiz arte?

Dagoeneko, ez da atzerabuelarik. Hasierako planari eutsi, eta iraun arte. Maratoiak erabakiko du noiz. Nabari da ziztada txikia ezker soleoan. Oin horrekin ahalik eta arinen zapaltzen saiatu. Eskuineko hankarekin babesten. Pisua beste aldera okertzen. Lurra apenas ukitzen. Hegan egiten. Posible al da hori?

Konturatzerako, Loiolan osatu da taldetxo. Ondo babestuta, motelxegi agian. Amaran beranduegi da; aurreko taldea urrunduta, hoge bat metro. Tartean inor ez: basamortu idorra.

Zurriolan, haizea eta euria. Gogor. Biserak, hegan. Itsasoa, haserre; ez dute gonbidatu festara. Ziztadak jarraitzen du, baina ez doa handitzen. Antiguako eraikinak itsasoko haizeteez babesten dute. Zentroan, Panfi eta Ikertxo, gel eta isotonikoekin.



Adrian Garcia helmugara iritsi berritan, Elia alabarekin batera. ADRIANGARCIA

Konturatzerako, lehen itzulia emanda. Maratoi erdia. Agian posible da. Taldea txikitzen doa. Baten batzuk aurkako norabidean, oinez. Erretiratu dira. Tokatuko al zait niri? Sagues berriro. Oraingoan, aldapatxoak gogorragoa dirudi. 30. kilometroa kursaalean, Kontxara bidean. Hasi dira hanketako beste muskuluak uzkuratzen, gogortzen. Mintzen. Kontraesana: lasaitua eragiten du, ezker soleoko ziztada arinduko balitz bezala.

Ondarretan taldea desegin da. Batzuk erritmoa azkartu eta badoaz. Jokatzeko garaia da; haiei itsatsi, eta aurrera. 35. kilometroan, Infernuko aldapa, bigarrenez. Asmatu zuten izenarekin.

Zentroan azkeneko aldiz. Hiru kilometroren faltan. Taldea ila-

ra luzea bilakatu da. Sufritzea tokatzen da, baina erritmoari eusteko arazorik ez. Azken agurrak kuadrillakoei. Egina dago. Euforia.

Baina segundo batean aldatzen dira gauzak. Zuritik beltzera. Ezustean. Easo plazan, danbatekoa. Gasolina bukatu da. Indarrak ahitu. Zartako galanta. Mina hanketan, eta oinez ibiltzeko tentazioa.

Azken kilometroa. Izorratuta, baina pozik. Irribarrez. Koltxoia handia da. Arrastaka bukatuta ere, hiru ordutik behera. Mini estadioan, familia. Orain bai. Bukatu da. Adiskidetu gara. Hainbestetan ukatutakoa itzuli du maratoiak Donostian. Beste batean kenduko du oster. Maratoiak erabakiko du noiz.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

ANDOAIN Erakusketa

Martin Ugaldere jaiotzaren mendeurrena. Ohiko ordutegia. **Azken eguna: Abenduak 4. Bastero.**

URNIETA Hitzaldia

"Feminismoa borroka-tresna gisa", Irantzu Varelaren eskutik. Gizarte-mugimendu aktiboena eta eraldatzaileena hausnarketa-une batean dago, berrikusten eta borroketan sakontzen. Non gauden eta norantz joan nahi duten aztertuko dute. **19:00, Sarobe.**

ANDOAIN Gabon Giroan

Kultur zikloa Bastero kulturgunean. Sarreraren aurre-salmenta hilaren 2an hasiko da, bazkideentzat. Gainerakoentzat hilaren 9an. **Bastero, Kutxabank.**

OSTIRALA 3

DURANGO Durangoko Azoka

Abenduak 3-7 online. Abenduak 4-8 aurrez aurre. Txanda bakoitzean Landako bisitatze ordu t'erdi izango da. Informazioa: durangokoazoka.eus. **Landako gunea.**

URNIETA Ipuin kontaketa

Liburutegiko xaguak zikloaren baitan, hitzordu berria. 17:00-18:00, 3-5 urtekoentzat. 18:00-19:00, 6-9 urtekoentzat. **17:00, Lekaio.**



Hitza eta dantza aurki daitezke ikuskizunaren oinarrian. AIURRI

ANDOAIN "Garaiz: 60 t.m", MugMus Laborategiaren eskutik

Lan honetan denbora zukutu nahi da mugimenduaren bidez, musikaren bidez, eszenografiaren bidez eta idazle baten berariazko pasarteekin. Denborak dena zeharkatzen du. Partaideak Jone Amezaga del Frago eta loritz Galarra Capdequi dantzariak dira, Garazi Kamio idazlearekin batera. **Abenduak 3, ostirala. 20:30. Bastero Kulturgunea.**

URNIETA Ikuskizuna

"Loreak eta zauriak", Xabier Leteren omenezko ikuskizuna. Musika eta bertsoa oinarri duen emanaldia da. Euskal Herrian barrena aurkeztu eta gero, azken emanaldia eskainiko dute Urnietan. Gonbidatu berezia izango dute Saroben: Antton Valverde. **19:00, Sarobe. 5 euro.**

ANDOAIN Hitzaldia

"Iruña-Veleia, euskalduntze berantiarra, Bagaudak...", Patxi Alaña hizlariaren eskutik. Iruña-Veleia Martxan Elkarrekin antolatuta. **19:00, Urigain.**

LARUNBATA 4

ANDOAIN Matrikulazioa

2022ko urtariletik uztaileira bitartean hasteko, 0-1 urteko taldean. Izen-ematea Basteron. **Azken eguna.**

ASTELEHENA 6

DURANGO Manifestazioa

EHE taldeak antolatu du, "Euskaraz bizitzeko... Euskararen errepublika" izenburupean. **17:30, Landako gunea.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Way down


Larunbata, 4. 19:30, 22:00.
Igandea, 5. 19:30.
Astelehena, 6. 19:30.
Asteartea, 7. 19:30.

Salvar el árbol

Haurrentzat.
Igandea, 5. 17:00.

Pan de limón

Larunbata, 11. 22:00.
Igandea, 12. 19:30.
Astelehena, 13. 19:30, 22:00.



SINOPSIS



Way down

Zuzendaria: Jaume Balaguero. **Gidoilariak:** Rowan Athale, Michel Gaztanbide... **Aktoreak:** Freddie Highmore, Astrid Berges-Frisbey, Jose Coronado, Liam Cunningham, Luis Tosar, Famke Janssen, Sam Riley, Emilio Gutierrez Caba. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Generoa:** Thrillerra, akzioa. **Iraupena:** 113 minutu.

Adiskidetasunari gorazarre

Espainiako Bankua menderaezina dioen kondairak ez du Thom Johnson beldurtzen. Helburua altxor txiki bat da, hamar egunez bankuan gordeta egongo dena. Hamar egun kutxaren sekretua ezagutzeko, hamar egun plan bat egiteko, hamar egun erasoa prestatzeko, hamar egun ihes-plan errepikaezinez bidez baliatzeko.

Hamar egun loria lortzeko edo espetxean amaitzeko. Telecinco cinemaren apustu handia da, nazioartera begira jartzea helburu duena. Ingelesekin egin dute filmaketa, Freddie Highmore (The good doctor) izanik aktore nagusia. Harekin batera eskarmentu handia duten estatu mailako aktoreak: Luis Tosar, edo Jose Coronado.

Bastero Kulturguneko "Gabon giroan" zikloa aurkeztu dute

Benito Lertxundi, Esne Beltza & Amak, Huntza, Antton Telleria... izen ezagunak Gabonetako egitarauan

Erredakzioa ANDOAIN

Bazkideentzako aurre-salmenta abenduaren 2an abiatuko da, eta salmenta orokorra abenduaren 9an. Sarrerak Basteroko leihailan bertan eta Kutxabank bidez eskuratu ahal izango dira. Egoe-

ra epidemiologikoak zenbateraino baldintzatuko du egitaraua? Unean uneko neurrien arabera, izango dela diote Basterotik, "saioak aldatu, baldintza berezietan gauzatu ala bertan behera utzi ahal izango dira".

Gaztain jatea bertan behera

Ikastolak Argitxo egunarekin eta Gora Kaletxiki Bandak elizako emanaldiarekin egin bezala, Urki dantza taldeak ere bertan behera utzi du Gaztain jatea. Abenduaren 18rako iragarritako zegoen, baina "Andoain eta orokorrean dagoen Covid-19 egoera dela eta" bertan behera uztea erabaki da.

Benito Lertxundi, Esne Beltza & Amak, Huntza, Antton Telleria... izen ezagunak aurki daitezke Gabonetako egitarauan.



Udal ordezkariak "Gabon giroan" ziklorako ateratako argazkian. AIURRI

Atzegizaleak batzeko erronka, elkarrekin 60 urte bete dituenen

Atzegizaleek "desgaitasun intelektuala duten pertsonak diren bezala onartzen dituzte, ez dituzte epaitzen"

Erredakzioa URNIETA

60 urte betetzera heldu den Atzegi elkarrekin ikasturte berezi honi begirako erronkak aurkeztu ditu egunotan Lasarte-Orian. Oraingoan bereziki Atzegizaleengan jarri nahi dute arreta. "2000. urtean Atzegi Atzegizale figura sortu zuen, adimen desgaitasuna duten pertsonetarako jarrera positiboa erakusten duten pertsonak identifikatzeko. Urte hauetan guztietan Atzegizale komunitatea hazi egin da eta jarraitzaileak batu ditu". 20 urte igarota,

"Atzegi pertsona horien jarre-
rak adimen-desgaitasuna duten
pertsonen bizitzan duen eragi-
na nabarmendu eta ezagutara-
zi nahi du". Atzegizale izan
daiteke boluntarioa den edo
Atzegi antolatutako jardueren
parte hartzen duena. Baina
haratago doa eta beraz, asko
konturatu gabe ere dagoeneko
Atzegizale izan daitezkeela ohar-
tarazi dute. Hala dio hain zuzen
Atzegiren kanpaina berriko
leloak; "Agian zu ere Atzegiza-
lea zara". Atzegizalea zer den
ulertzeko hainbat baliabide



Eskualde mailako kanpaina aurreko astean aurkeztu zuten Lasarte-Orian. NOAUA

plazaratu du Atzegi. "Atzegi-
zaleak leku askotan eta adin
tarte guztietan aurki ditzakegu;
desgaitasun intelektuala duten
pertsonak diren bezala onartzen
dituzte, ez dituzte epaitzen,
haiengan sinesten dute eta gi-

zartean parte hartzeko aukerak
eskaintzen dizkiete. Keinu txi-
kiak diruditen arren, eragin
handia dute desgaitasun inte-
lektuala duten pertsonen bizi-
tzan". Informazio gehiago atze-
gi.eus atarian.

Lete oinarri duen sentikaria, ostiral honetan Saroben

"Loreak eta zauriak" ikuskizunaren azken emanaldia izango da. Antton Valverde izango da gonbidatu berezia

Erredakzioa URNIETA

"Loreak eta zauriak Xabier Lete omendu nahi duen diziplina-
arteko emanaldia da. Baina ez
da omenaldi bat soilik. Elkarri-
keta bat gorpuztu nahi du Xabier
Lete lehendabiziko kantuak
idatzi zituen garaiaren eta gaur
egungo munduaren artean. Bere
kantak gogoratzearekin batera,
bere kantuen eta melodien bide
gaur egun bizi dugun jendarte-
ari begiratu dio proposamen
honek. Bertsoz, kantuz hitz lauz
70eko hamarkadatik 2020ra, bi-
zitzatik heriotzara, "ni"-tik "gu"-

ra eta Xabier Letetik gugana
bidaiatuko dugu".

Hamaika urte beteko dira la-
runbat honetan -abenduak 4-
Xabier Lete sortzaile handia
zendu zenetik, eta aste honetan
Urnietara iritsiko da Euskal
Herrian barrena ibili den ikus-
kizuna. Maila handiko artistak
parte hartzen ari dira, gainera,
ikuskitzunean. Honako hauexek:
Beñat Gaztelumendi, bertsoak
eta testuak; Xabier San Sebastian,
ahotsa eta gitarra; Joserra Sen-
perena, pianoa; eta Quico Puges,
biolontxelo.



Senperena, San Sebastian, Gaztelumendi eta Puges ikuskizuneko partaideak. NOAUA

Emanaldiak Leteren kantuak
izango ditu abiapuntu, baina
bertsoak ere pisu nabarmena
izango du. "Izan ere, Letek ha-
rreman berezia zuen bertso-
lariarekin; haren kantu askotan
sumatzen da garai bateko ber-

tsolarien eragina, azaldu zuen
Gaztelumendik ekimenaren
aurkezpenean. Leteren kantuak,
beraz, bai. Baina bertso berri-
tuak eskainiko dituzte, eta kan-
tu berri bat ere aurkeztuko dute,
artista handiari eskerronez.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Brosa anaiak

Zorionak Asier (12), Iker (15) eta Unai (20)
Brosa! Muxu handi bana Enekoen eta etxeko
guztien partetik!!!



ANDOAIN

Zorionak, June

June abenduaren
6an bost urte beteko
ditu eta primeran
ospatuko dugu.
Zorionak polita eta
segi beti bezain
irribarretsu eta alai.
Asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- **www.aiurri.eus** Zorion agurra atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- **diseinua@aiurri.eus**
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:** 943 300 732.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako
irakasleak **frantsese-
ko klaseak** ematen
ditu: EOI diploma lor-
tzeko, mintza-prakti-
karako, enpresetarako
klaseak,
20 euro orduko.
**693 692 823 - 665
719 827**

Andoaingo emakume
pentsioduna hizkuntza
laguntza **edo mintza-
lagun** bila dabil: Gaz-
telaniaz eta ingelesez

/ danesaz aritzeko.
Pertsona irekia, eta
jendea ezagutzeko
gogoarekin: **reflexo-
logist45@yahoo.
co.uk**

PARTE HARTZEKO

Emaillez:
**diseinua@aiurri.
eus**
Whatsappez:
619 163 537
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrira:
**Arantzibia 4-5,
behea. ANDOAIN**

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo **publizitatea@aiurri.eus**

**Eskelak
Aiurri:
90 euro**

GUGAN BEGO

**Arantxa
Iztueta Ansa**



Goizean goiz, oraindik ilun
ezustean joan zara lagun.
Negarrari ezin eutsi egun
eskerrak zure oroimena daukagun:
ederra, alaia, eskuzabaldun;
inoiz ez ahazteko modun.

Zure koadrilla

Andoain, 2021eko azaroaren 29an





Urnietako Bertso Eskolako kideek ekitaldia aberastu zuten. AIURRI

"Matxismoa da gizarte honetan pandemia iraunkorrena"

Nekane Ubillos eta Irati Zinkunegi bertso eskolako kideek bina bertso abestu zituzten, azaroaren 25ean

Jon Ander Ubeda URNIETA

Azaroaren 25eko iluntzean arreta guztia Azkorte kalean bazegoen ere, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguneko ekitaldia aurrera atera zen. Isilunea egin ondoren, Izaro Ubillos eta Maite Lopez herrikideek udal adierazpena irakurri zuten.

Bertsoak

Urnietako Bertso Eskolako kideek parte hartze zuzena izan zuten, ohikoa bilakatu den ekitaldia aberastuz. Nekane Ubillos eta Irati Zinkunegi bertso eskolako kideek bina bertso abestu zuten. Hauexek:

Gaurko honetan elkartu gera indarkeria salatzeke emakumeok ez baikera jaio jipoituak izateko hilketa bat egon behar al da arazoa ikusteko? Zerbait egin beharra daukagu inor gehio ez hiltzeko

Covid-a bada pandemia bat ez da izan ez lehena, nahiz eta jakin guk badakigun agian ez dela azkena haren aurretik guk bagenuen guretzat lazarriena matxismoa da gizarte honetan pandemi iraunkorrena.

Matxismoa hitzekin hasten da eta bukatu ekintzan zenbat emakume tratatuak objektu xar baten gisan holakoak ikusi ta paso egiten degu bizitzan edozein eraso sala zazu ez zaitez konplize izan.

Lagun jasaten ari bazara irain edo tratatu txarrik eta hortikan ateratzeko falta badezu indarrik zure borroka gure ere bada ez zaitez senti bakarrik elkarturik ez dago irabaz ezin dezakegun gerrik.



Mirari Irurtzun biolin jolea eta Ane Urbizu akordeoi jolea. AIURRI

"Erasotzaileei adierazi behar diegu ez ditugula ondoan nahi"

"Erantzukizun kolektiboak hartuz lortuko dugu indarkeria matxistarekin bukatzea", adierazi zuten Andoainen


Erredakzioa ANDOAIN

2002az geroztik Gipuzkoan indarkeria matxistak hil dituen emakumeak eta haurrak hartu nahi izan zituzten gogoan, azaroaren 25eko ekitaldian. Ainhoa Aiertza aurkezleak izendatu zituen zortzi emakumeak (Miriam, Rakel, Angeles, Charo, Jasmin, Clara, Nagore eta Belen) eta lau haurrak (Markel, Aicha, Julen eta Irati).

Emakume erakundearen azterlan bat hizpide izan zuen Aiertzak: "indarkeria jasaten duten emakumeen erdiak bakarrik jotzen du zerbitzu publikoren batera laguntza eske. Beste erdia ezkutuan dago. Baina ez bakarrik biktimen erdia. Erasotzaileen erdiak ere ezkutuan daude. Gure lagunak, gure bizilagunak, gure lankideak... izan daitezke. Horrexegatik, oraindik ere beharrezkoa da indarkeria matxistaren ikusezintasunaren

aurka borrokatzea. Horrexegatik, oraindik ere beharrezkoa da emakumeentzat espazio ziurra eraikitzea, auto-jabetzarako bideak eraikitzea, zaintza partekaturako eremuak eraikitzea. Eta horrexegatik ere, beharrezkoa da erasotzaileei adieraztea ez ditugula gure ondoan nahi. Ez dugula itsuarena egingo gure lagunak bere bikotekideari mespretxuz eta erasokor hitz egiten dioenean, ez dugula gorrarena egingo gure auzikideak bere etxeok oihuka iraintzen ditue-nean, ez garela mutu geldituko gure ahizpak kontatzen digunean bere bikotekideak urteak daramatza gaizki tratatuz, kalean gizon jatorra badirudi ere".

Ezkutuko errealitate horri begira jartzea eskatu zen Andoainen: "Erantzukizun kolektiboak hartuz lortuko dugu indarkeria matxistarekin bukatzea".



On egin, Iñaki! AIURRI

"Iñaki" urnietarra, zozketaren irabazlea

Egunean Behin lehiaketako bederatzigarren asteko irabazlea izan da

Erredakzioa ANDOAIN

"Iñaki" erabiltzailea izan da azken asteko zozketan irabazlea, azaroaren 22tik 28ko partidei dagokiona. "Aiturri" taldean jokatzeko ari diren ehunka kideen artean zozketa egin eta gero, bera izan da irabazlea. Gogoan izan zozketan sartu ahal izateko aste osoko partidak jokatu behar direla. Aurreko asteko irabazleak "Ezkide", "Aimar", "Haizea", "Jon Ander", "Oterber", "Itsaso", "Uria" eta "Kristina" izan ziren. Denek ere Arruti gozotegiko saria eskuratu dute. Zorte on aiurriazaleei.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analisiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: **COVID-19 | DATUAK**

www.aiurri.eus



Urnietako
udala